

2017

# URTEKO TXOSTENA



Festak.com

Memoria honetan Izarbidean elkarteak, batez ere boluntarioei esker, 2017. urtean zehar garatu dituen ekimenen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.

2017ko ekimenetan hainbat dira aipatzekoak eta aurtengoan ospatu berri dugun 10. urteurrena da nabarmendu nahi duguna. Inklusioa helburu nagusi bezala, egun osoan zehar ekintza ugari

burutu genituen, esku lanen tailerrak, dantza emanaldia, batukada, herri bazkaria, herriko artisten kontzertua eta bukaera ezin hobea emateko Motxila 21 en kontzertua izan genuen.

Urte osoan zehar Sukalde tailerra egiten jarraitu dugu eta hainbat errezeta berri egin dira. Polikiroldegiko gimnasio eta igerilekura joaten direnean ere gustura



aritzen dira. Gure lokalean, Topagunean, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak eginez, futbolinean jolasten edota beste hainbat ekimenetan. Zaldietara, ekinoterapia saioetara nahi baino gutxiagotan joan izan gara. Zapaturu egiten den arren talde bitan joaten gara eta horregatik, asteroko irteera izan ordez erabiltzaile bakoitzak bi astean behin egiten duen aktibitatea da. Asteburu osoko irteera batzuk egin dira eta baita egun pasako irteerak ere.

Ekimen edo irteeraren edota aktibitatearen baten sortu daitezkeen anekdota eta bizipen asko kontatu ditzakegun arren, erabiltzaileengan sortzen den itzelezko ilusioa azpimarratu nahi dugu.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu, existitzen diren muga bakarrak nork bere buruari jartzen dizkiogunak direla.

Izarbidean, dirua irabazteko asmorik gabeko elkarte da. Elkarte hau anistazun-funtzionala duten erabiltzaileen gurasoek sortu zuten. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta Etxebarriko guraso batzuek. Gaur egun, Izarbidean taldea familiar-tekoek, boluntarioek eta erabiltzaileek osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia, haien seme-alaben gizarteratzearen aldeko plana egitea eta gizarte osoari, baina batez ere herri horietako herritarrei, horretan partaide eta laguntzaile izateko eskatzea da.

Elkarte sortu ondoren, eta euren seme-alaben premien azterketak egin ostean, honako hau ondorioztatu zen: momento horretan bi lehentasun zeudela; alde batetik, eguneko zentroa sortzea eta, beste alde batetik, aisialdirako talde bat eratzea.

Izarbideanek, Markina-Xemein herrian, eguneko zentro bat sortzea bultzatu zuen zenbait instituziotan, esaterako, Foru Aldundiaren Ongizate Batzordearen aurrean.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal

batean. Izenak esaten duen moduan, helburu nagusia ume, gazte eta helduak elkarrekin egoteko gune aproposa izatea da.

Nabarmendu nahi dogu Izarbidean Onura Publikodun Elkartean erroldan onartua dagoela 2002ko Maiatzaren 7tik.



Markina-Xemein eta haren inguruan ez dago pertsona horien premia betetzeko aisialdi ekintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi egokitua eskeintzen zaie, beti ere, gizarteratze helburuari jarraituta. Hori guztia boluntario eta laguntzaile kontratatuekin batera garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean hainbat ekintza egiten dituzte: paseoa ibili, margotu, jolastu...

Dena den, kontzientek gara hori ez dela egoera ideala, beraien Aniztasun-funtzionala dela eta, lagunekin eta beren monitoreekin

egon arren bestelako herriko ekintza eta ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile ia gehienak baztertuta gelditzen zirelako.

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira Inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familiakideek ez ezik, baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatueta" parte har dezaten inklusio bat aurkitzeko bidean.



Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Gaur egun 19 dira. la gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko beste herri batzuetakoak ere (Etxebarria eta Mutriku).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak, une honetan 14 eta 60 urte bitartean daude. Horregaitik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

Taldeak	Garra-garraka	Algaraka	Guztira
Neskak	1	8	9
Mutilak	3	7	10

Garra-garraka taldea (14-22 urte bitartekoak)

Algaraka taldea (23-60 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Aipatu beharra dago erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen direla, beraientzat aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria baita. Izan ere, egunerokotasunean egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute **Topagunea**.



- Adimen-desgaitasuna legeak onartuta izatea.
- Elkartean erroldatua egotea.
- Elkartean dagoen bitartean zunda, injehtagarri eta abarren beharra ez edukitzea.
- Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzailearen ratoria egokituta egon beharko dute.
- Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



Izarbidean elkartearen **Topagunea** eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkarreak ez duelako horrenbeste jende kontratatzeko baliabide ekonomikorik, eta bigarren, baina ez horregatik garrantzia gutxiago duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

Horien guztien arduraduna ere boluntarioen artetik hautatutako bat da, azken hau kontratuepean egoten da.

Boluntarioak oso pozik eta gogotsu etortzen direla Izarbideanera esaten dute eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen beraiek esandako esaldi batzuk: “pertsona bakoitzak bere lekua duelako eta bizitza bat dugunez, aprobetxatu egin behar dela erakusten digutelako, talde oso aberasgarria delako eta gustu handia da bertako partaide izatea”, “pozik bizitzen eta alaitasunez gozaten erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako”, “oso persona maitakorrak die, zuk emotezun gitxiz asko jasoten dozuelako eurengandik”, “Irakasle paregabeak dira, irribarrik galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako”.

### Boluntarioak lortzeko bidea

**Prentsa:** Zenbait egunkariekin harremanetan izan gara: HITZA, DEIA, CORREO. Hirurei eskatu genien titular hau erabiltzeko: “IZARBIDEAN Elkarreak boluntarioak behar ditu”.

**Kartelak:** Markina-Xemein, Ondarroa eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

**Ahoz ahoko transmisioa:** hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, institutoetan eta abar egiten dituzten komentarioetatik lortzen dogu oihartzun handiena.

**Sare sozialak:** Instagram eta Facebook bidez ere geure burua ezagutzera ematen ari gara, gure hainbat ekimen argitaratuz jendea elkartera erakartzea helburu dugularik.

### Boluntario izateko betebeharrak

18 urte beteta izatea eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera ere ari daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimenarekin.

Erabiltzaileraren baten etxekoa ez izatea.

IZARBIDEAN elkarrearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

### Boluntarioei harrera

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik beraiekin biltzen da koordinatzailea. Bilera horretan hurrengokoa azaltzen zaio:

- Haien eskaintzara moldatzen gara eta lana zein talderekin eta zein ordutegitan egingo duen adosten dugu.
- Lokala erakusten zaio.
- “Eskubideak eta betebeharrak” fitxa betetzen dute (boluntarioen legea).
- Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie).
- Erabiltzaile bakoitzaren informazioa ematen zaio.

**Formazioa**

Boluntarioei lehenengo bileran Aniztasun-funtzionalari buruzko dokumentu bat ematen zaie. Bertan azalduta dago nola funtzionatu behar duten erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazio eskubideak dituztela azaltzen zaie.

Ikastaro horiek, helburu argi bat dute: Lana ahalik eta modu eraginkorrean garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu informazioa eman diezaguten.





Arestian azaldu dugun modura, elkartearen helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzetan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, esparru desberdinetan mug

itzen gara. **Topagunean** egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dute. Adibidez: po likiroldegia, antzerkia, tirolina, etab

Erabiltzaileen integrazioa dela eta esan genezake, talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, alde desberdinak hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen araberakoak. Hori dela eta, ekintza oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez: **Algaraka** taldea de autonomía handiena duena. **Garra-garraka** taldeak arazo gehiago eta anitzagoak ditu, eurak baitira ezintasun handienak dituztenak.



**Gazteak: Garra-garraka taldea**

- Larunbatak igerilekua 10:30etatik-13:00 etara (bi erabiltzaile zapatu bakoitzeko)
- Ekinoterapia 16:00etatik-19:00 etara ( bi larunbatetik behin)
- Igandea *Topagunea* 16:00etatik-19:00etara.

**Nagusiak: Algaraka taldea**

- Astelehena 18:00etatik-20:00etara *Topagunean*
- Asteartea 18:00etatik-20:00 etara Zeramika tailerra
- Asteazkena 18:00 etatik-20:00 etara sukaldaritza *Topagunean*
- Ostegunetan 11:00etatik-13:00 etara pasiada herrian zehar
- Ostiraletan 17:00etatik-19:00etara *Topagunean*
- Ostiraletan beste batzu; igerilekua edo gimnasioa 18:00etatik-20:00etara. 2 taldetan banatzen gara; hilean ostiral bitan batzuk igerilekura eta beste bi ostiraletan gimnasioa.
- Larunbatetan Ekinoterapia 16:00etatik-19:00etara. Taldea zatitu egiten da: Garra-garrakoekin elkarbanatzen dute ekintza, talde horretan erabiltzaile gutxiago dagoelako.



IZARBIDEAN elkarteak abian jarritako aisialdirako proiektu hau, jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbideanen euskarri nagusia.

2016tik 2017.urtera baja batzuk izan ditugu, baina boluntario berrien igoera nabarmena izan da, Markina\_Xemeingo Lea-Artibai ikastetxean hitzaldi bat eman ondoren 10 begirale berri gehitu dira eta hortik 8 Markina-Xemeingo neska dira eta beste 2 ak Ondarrutarrak. 2017 ko ikasturtean guztira 31 boluntario daude eta horietatik 2 mutilak dira.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela 2 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkarbanatzen dituzte ehuneko ehunean.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren arabera da gehien bat, horietako bakoitzak bere ezaugarriak dituelako eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira. Topagunea erabiltzen da ekintza gehienak burutzeko, baina bestelako eskintzak ere erabiltzen dira, adibidez: zinema, polikiroldegia, bolera...

Arratsalde bateko irteerak ere egin dira, adibidez: Lezamara Athletikeko nesken partidua ikustera, Aulestiko parkera... Asteburuko irteerak ere egin dira, esaterako: Gasteizera eta Sukarrietara.



Nagusien taldea: **Algaraka**

### Topagunean:

- **Batzarrak:** eguneroko programazioa landu, hurrengo egunetakoak prestatu, proposamen berriak jaso...
- **Eskulanean tailerrak:** belarritakoak, eskumuturretakoak, apaingarriak, kobrea erabiliz arbolatxoak, egurrezko kaxak... Denetatik aurtengo Urriko azokan arrakasta gehien izan duena apaingarri eta kaxak izan dira.
- **Mahai-jokoak:** partxis, nor da nor?, puzzleak, domino, margotu...

Urtero bezala Markina-Xemeingo Urriko Azokan parte hartu dugu. Erabiltzaileek egindako eskulanak saldu dira, eta bide batez herritarren aurrean erakutsi dituzte euren abilezia eta trebeziak.

Atal honetan nabarmendu nahiko genuke hainbat herritarrek Izarbidean Elkarteari laguntzeko duen borondate onaren adierazgarria izan dela Azoka; izan ere, hainbat esku-lan eskaini dizkigute gure postuan saldu ahal izateko.

- **Sukaldaritza:** Gurinezko gailetak, pizza, bizkotxoak... Hona hemen burutu ditugun pare bat erreztea adibide gisa:



• **Gurinezko gailetak:**

- *Osagaiak: 100 gramo gurin, 150 gramo irin, 60 gramo azukre, arrautza bat.*

- *Prestaketa: Hasteko, ontzi batean gurina eta azukrea ongi nahastu (eskuekin). Ondoren arrautza gehitu eta nahastatu. Dena ondo nahastuta dagoenean irina gehitu pixkanaka, eskuekin nahastuko dugu oreka lortu arte (eskuetan itsasten bada, irin pixka bat gehiago bota). Behin oreka lortu dugunean, gailetei nahi dugun forma ematen hasi eta labeko paperean jartzen joango gara. Bukatzeko labean sartu ( aurretik berotu 180 gradotara) eta 15 minutu igaro ondoren gure gailetak jateko prest izango ditugu.*

• **Txokolatezko bizkotxoak:**

- *Osagaiak: 3 arrautza, 200 gramo irin, 175 gramo azukrea, 200 gramo reposteriko txokolatea, legamia goilarakada bat.*

- *Prestaketa: Lehenik eta behin ontzi batean gurina urtu eta txokolate tableta bota, hau ere urtu arte. Ondoren ontzi horretara arrautzaren gorringoak bota eta nahasi ( zuringoak gerorako gordeko ditugu). Dena ondo nahasia dagoenean azukrea, irina eta legamia gehituko dizkiogu. Beste alde batetik lehen gordeta geneuzkan zuringoak elur punturaino harrotu eta aurreko orearekin poliki nahasi. Bukatzeko dena molde batera pasatu eta aurretiaz 180 gradotan berotutako labean sartuko dugu 40 bat minutuz.*

**Topagunetik kanpo:**

- Herrian zehar paseoak eman edo eta zerbait hartzera joan...
- Ekinoterapia saioak
- Polikiroldegira: Igerilekura eta gimnasia.
- Asteburuetako irteerak eta egun osoko irteerak.



Gazteen taldea: Garra-garraka

### Topagunean:

- Puzzleak egin
- Margotu
- Musika entzun eta jolasak burutu musikarekin
- Ordenagailuan jolastu
- Mahai jokoak
- Dantza

### Topagunetik kanpo:

- Herritik edo bidegorritik paseoak
- Igerilekura
- Ekinoterapia saioak
- Asteburuko irteerak
- Egun osoko irteerak



Garra-garraka taldea

Erabiltzaile guztiak**Ekinoterapia saioak**

Ekinoterapia saioak larunbatetan egiten dira, 16:00etatik 19:00etara, YEGUADA OLMEDOan (Mutriku).

Bi taldeetan banatuta daude, ekintza hobeto burutu eta aprobetxatzeko asmoz. Lehenago aipatu bezala, larunbat batean **Garra-garraka** taldekoak joaten dira, baina 5 erabiltzaile baino ez direnez, **Algaraka** taldeko batzuk ere parte hartzen dute, txandaka, haiekin batera eta hurrengo asteburuan Algaraka taldeko gainerakoak joaten da.

Ekintza hori urte guztian zehar burutzen da, urtarrilean hasi eta abenduan bukatzen dituzte saioak (udaldiko oporren tartea salbu).

Ekinoterapia saioak oso ondo baloratzen dituzte, bai erabiltzaileek eta baita gurasoek ere.

Gauzak horrela, ekinoterapia saioek jarrai dezaten diru-laguntzak lortzen ahaleginduko gara.



### Asteburuko irteerak

2017ko irteerak honako hauek izan dira:

Martxoak 11-12 **Gasteizera** irteera: Algaraka taldearekin.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Rosa, Nahia, Maia eta Andrea.

Bertan buruturiko ekintzak: Herriko txoko desberdinak ikusi eta freskagarri batzuk hartu, dendaz denda ere ibili ziren erosketa batzuk egiten eta jolas desberdinak burutu zituzten aterpetxetik hurbil dagoen parkean. Afal ostean berriro ere kalera atera ziren tabernetan dantza apur bat egitera, oso gustoko bait dituzte dantza saioak. Azkenik neka-neka eginda lotara abiatu ziren.

Apirilak 1-2 **Lekeitiora** irteera; Garra-garraka taldearekin

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Nerea, Igor, Nagore, Maitane eta Ane E.

Bertan buruturiko ekintzak: Goiza portuan eta hondartzan igaro ondoren freskagarri batzuk hartu eta arratsaldean igerilekura joan ziren. Oso gustora ibil ziren bertan utzitako uretako material desberdinekin jolasten. Afaldu ostean paseotxo bat eman eta lotara.

Maiatzak 6-7 **Sukarrietara** irteera: Talde osoa.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Nahia, Aitor, Ane L, Igor, Ainara eta Nerea.





### Asteburuko irteerak

*Bertan burututako ekintzak: Kamiseta tailerra egin, ohe elastikoetan jolastu, aterpetxean kantu emanaldia ikusi, hondartzako tabernan freskagarri batzuk hartu, Bermeoko Izaro irlari itsasontzian buelta bat eman, eta, azkenik, aterpetxean bertan egiten duten diskotekara joan ziren dantza egitera.*

*Aipatzekoa da talde osoa joaten irteera dela eta hori ere aberasgarria dela beste irteera guztiak banatuta egiten direlako.*

*Dena den, banatuta joate horrek ere badu bere arrazoia: algaraka taldean asko disfrutatzen dute "bestelako" gauzak egiten eta autonomia gehiagorekin jokatzeko dutenean.*

Urriak 7-8 **Lekeitiora** irteera: Garra-garraka taldearekin.

*Parte hartu zuten boluntarioak: Rosa, Nahia, Amaia, Igor, Nagore eta Nerea.*

*Bertan burututako ekintzak: Lekeitioko farora pasada bat eman eta bertan jolas batzuk egin eta argazkiak atera, ondoren portura joan eta freskagarri batzuk edan herriko tabernetan. Arratsaldean, betiko legez, hain gustoko duten igerilekura joan eta igeri eginez ongi pasatu. Azkenik afaldu ondoren mahai jolas batzuk egin eta lotara.*

Urriak 28-29 **Lekeitiora** irteera: Algaraka taldearekin.

*Parte hartu zuten boluntarioak: Rosa, Nahia, Ane eta Nerea*

*Bertan burututako ekintzak: Goiza herrian zehar paseoa ibili ondoren arratsaldean autobusa hartu eta Durangora abiatu ginen festetara, bertan giro paregabean murgildu, atrakzioetan ibili, freskagarriak edan eta bueltatu ginen. Aipatzekoa da, horrelako ez usteko ekintzak atseginak izaten dituztela eta oso ondo ibili zirela. Azkenik afaldu eta lotara.*



### Eguneko irteerak

2017ko irteerak honako hauek izan dira:

Urtarrilak 29 **Lezamara** irteera **Athletikeko nesken partidua ikustera:** Algara taldearekin

*Boluntaria batek lagunak ditu Athletikeko nesken taldean eta bere bitartez sarrerak lortu eta larunbat goiza pasatzera joan ginen. Partidua hasi aurretik zelaira egin genuen salto, taldekideekin argazki bat atera eta gure erabiltzaileek zeramika tailerlean egindako oparia emateko. Ondoren gogotsu animatu genuen partidua eta irabazle atera ziren neskak. Partidu ostean, berriz ere beraiekin tartetxo bat pasatzeko aukera izan genuen da talde osoak sinaturiko kamiseta bat oparitu ziguten. Goiz ederra izan zen. Azkenik herriko taberna batean bazkaldu eta Markina-Xemeinera bueltatu ginen.*



Irailak 23 **Aulestiko parkera** irteera: Garra-garraka taldearekin.

*Eguraldi ederra aprobetxatuz egun pasa joan ginen Aulestira. Bertan parke bat dago zinburu ugariarekin eta bainuak hartzeko erreka handi batekin. Jolas desberdinak burutu eta txapuzoi batzuk hartu genituen. Ondoren, guztiok batera etxetik eramandako janari gozoa jan eta Markina-Xemeinera bueltatu ginen.*



**Bestelako ekintzak:**Otsailak 4 **Santa Ageda:**

Aurten lelenengoz Markina-Xemeingo beste elkarte batzuekin bat eginda atera ginen kantuan. XAT, guraso elkarte eta Izarbidean atera ginen. Horrez gain, boluntario eta hainbat guraso elkartu eta eguraldi txarrari kantuz aurre egin genion. Denon artean asmaturiko bertso pare bat ikasi eta soinujole eta bertsolari birekin ibili ginen herria eta herritarrak alaitzen.

Lehen aipatu bezala eguraldi txarra eta hotz handia egiten zuen arren, gu urteroko ilusio berdinarekin atera ginen kantuan.



**Bestelako ekintzak:****Martxoak 4an, Gozogintza postua:**

Urtero bezela merkatarik elkarrekin antolatzen duen azokan Izarbideanek bere postua jarri zuen. Urtean zehar sukaldaritza tailerren ikasitako gozoak saltzeko. Postua orain dela hiru urte jarri genuen lehenengoz, baina herritarren artean erreferentzia bihurtu dela esan genezake egindako guztia bi ordutan saldu bait genuen. Aukera izaten jarraitzen dugun bitartean ekimenarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa.

**Martxoak 18an, bertso bazkaria:**

2017 urtean zehar Izarbideaneko topagunaren 10. urteurrena ospatzeko ekimen ezberdinak antolatu dira eta horren barruan egin den bat, bertso bazkaria izan zen. Antsotegi hotelarekin bat eginda eraman genuen aurrera ekintza hau. Erabiltzaile, boluntario, guraso edo senideek eta herritarrek hartu zuten parte, egunari kolore eta poztasuna emanez. Hasteko, goizean triki poteoa egin genuen herrrian zehar eta eguraldiak lagundu ez zuen arren, kaleak kantuz alaitu genituen. Ondoren, Antsotegira abiatu eta bazkari gozo baten ostean, bertso saioak hasi ziren.



**Bestelako ekintzak:****Ekainak 17an Izarbidean eguna:**

Lehen aipatu bezala, aurten topagunearen urteurrena ospatu dugu eta ekintza desberdinak egin dira. Baina ekainaren 17 a berezia izan zen, egun osoko jaialdia prestatu eta herritarrekin bat eginda jaia aurrera eraman genuen.

Goizean txikientzako esku lan tailerra izan genuen sormen tailerrarekin anotolatuta; ondoren ,txosnari irekiera eman eta batukadarekin herrian zehar dantzari ibili ginen. Janire de Andresen dantza taldeak ere eskaini zuen emanaldi txiki bat eta eguerdian guztiok Plaza Barriean batu eta gure erabiltzaile eta boluntarioek prestatutako dantza baten ostean herri bazkariari hasiera eman genion. Bazkal ostean herriko artista ezberdinak atera ziren kantura. Emanaldi nagusi bezala Motxila 21 izan genuen eta azkenik erromeria. Giro ezin hobea izan genuen, herritar,erabiltzaile,boluntario, familia ... bat eginik ibili ginen. Beste horrenbeste urte eta gehiagoren bila abiatzen gara orain.



**Bestelako ekintzak:**Ekainak 23an **San Juan suak:**

Urtero bezala eta ohitura onak galdu gabe, aurten ere Izarbideanekoen beraien protagonismo puntua izan dute kalejira eta ikuskizunean. Sua pizteko ohorea ere izan zuten, Janire de Andresen dantza taldeko umeeekin batera. Kalejiran eta dantzaldian ere gustura parte hartu zuten gure erabiltzaileek, gainerako herritarrekin batera.



**Bestelako ekintzak:**

Uztailak 16an **Herritxou:**

Herriko jaietan ere parte hartzeko aukera izan genuen eta zein pozik aritu ginen. Aldapan gora kantua aukeratu ondoren entsaio ugari egin genituen, ondo prestatu eta Karmen jaietako pailada egunean, bazkalostean eszenatokira salto egin eta erabiltzaile eta begiraleok herria dantzan jarri genuen.



**Bestelako ekintzak:**Urriak 14an **Azoka:**

Erabiltzaile eta gurasoak izan ziren saltzaile lanetan postuan, erabiltzaileek egindako eskulanak, jendeak borondatez emandako liburuak eta Izarbideanek ateratako nikiak saldu genituen. Gauza asko saldu ziren, baina horrez gain eta garrantzitsuena dudarik gabe hau da: zein ondo pasatzen duten erabiltzaileek eurek egindako gauzak saltzen eta jendeari azalpenak ematen. Aipatzekoa da baita, gabonetako loteria atera dugula eta loteria ere saldu zela azoka egunean. Egun horri begira izaten dugun helburu nagusia primeran bete zen; hau da, Izarbideaneko erabiltzaileak egun horretan beste edozein herritarren moduan herriko ekintza esanguratsu baten partaide izatea eta sozializatzea.





**Bestelako ekintzak:****Abenduak 15 Lagun Izkututa:**

Urteari amaiera emateko, erabiltzaile eta boluntario guztiak Topagunean elkartu ginen. Elkarrekin urtero erabiltzaile ta boluntarioei ematen dien gabonetako oparitxoak jaso eta aurretiaz zozketa bidez tokatutako pertsonari eman genion lagun izkutuaren oparia. Egun hau oso berezia eta polita denez, kopau bat prestatu zen Topagunean eta jaia bukatu ostean, herriko tabernetara joan ginen taldean, freskagarriak hartu, dantzan egin, pintxoak jan, argazkiak atera... Erabiltzaileak oso-oso pozik egoten dira honelako ekintzetan gainerako herritarrekin batera ibiltzen direlako kalean.



**www.izarbidean.org**

**Facebook-Izarbidean**

**Instagram-Izarbidean**

2010ko uztailean jarri genuen martxan gure webgunea. Zenbait helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuena da erabiltzaile, haien familietako partaide eta oro har, herrikoei, ingurukoei eta gutaz zerbait jakiteko gogoia duten guztiei informazioa helaraztea.

Bizi garen garaia kontutan hartuta, hausnarketa bat egin eta interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartarazita, gure barri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu, izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare hauetan eta Izarbideanek ere berea izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun murgilketaren inguruan balorazioa oso positiboa da, izan ere, erabiltzaileek bereziki estimatzen dute beraien berri ematea irudi eta testu hoietako protagonista izatea gustoko dute. Gainera, jendeari elkartaren berri emateko bide arina eta zuzena da.



www.izarbidean.org

Laguntzaileak:

Markina-Xemeingo Udala

Etxebarriako Udala

Ziortza Bolibarko Udala

Bizkaiko Foru Aldundiko  
Gizartekintza Saila

Laboral Kutxa S. Coop.

Lagun Aro

La Caixa

Kide

Markina-Xemeingo  
Txirrindulari Elkarte

Eika S. Coop.

Cikautxo

Arrasate

Lea Artibai Ikastetxea

...

